

## 1. FUNTSEZKO ELKARTEAK: Perfilak

**Enpresa honetan lau bazkide gara: June Martinez, Irati Zamalloa, Miren Marias eta Naia Arregi.**

- **Diseinatzaileak:** Eraldatu behar dituzten arropak diseinatu behar izango dituzte, bezeroen gustora.
  - **June Martinez izango da diseinatzaile buru, diseinatzeko esku ona, originaltasuna eta gusto ona duelako.**
    - Ordutegi aldakorra izango du.
- **Jostunak:** Diseinuari erreparatuz erropak eraldatuko dituzte.
  - **Irati Zamalloa izango da jostun buru, jostea asko gustoko duelako, oso trebea delako arloan eta lana azkar egiten duelako.**
    - Ordutegi finkoa izango du.
- **Teknologian adituak:** Teknikariek enpresaren web orria diseinatuko dute eta aurrera eramango dute. Arazoak egonez gero konpondu egingo dituzte.
  - **Miren Marias izango da teknologia arloan arituko dena, teknologian aditua delako eta web horri on bat sortzeko ahalmena duelako.**
    - Ordutegi aldakorra izango du.
- **Logistika:** Banatzaileek bezeroen erropak banatuko dituzte. Oso garrantzitsua izango da produktuen bidalketa ondo burutzea (epeaz ondo heltzea, eta egoera onean heltzea)
  - **Naia Arregi izango da logistika arduraduna, gidatzeko karneta duelako eta bezeroekin tratu ona duelako.**
    - Ordutegi finkoa izango du.
- **Dendako saltzailea:** Bezeroekin harremanetan egongo da eta dendan lagunduko die.
  - **Laurok izango gara, txandakatuko gara.**